

2017KO MAIATZAREN 9AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko and.

ZINEGOTZIAK:

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletzeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren 9a izanda, arratsaldeko zazpiak eta bost zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen apirilaren 11ko ohiko bilkuraren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaizen Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako akta aho batez onartu egiten da. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, A.J.A. 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Zkia.	Data	Edukia
58	2017/04/07	OBRA-LIZENTZIA EMATEA 2601 LURZATIA IXTEKO
59	2017/04/10	OBRA-LIZENTZIA EMATEA ESTALDURA BERRITZEKO CASTILLO KALEAN
60	2017/04/10	OBRA-LIZENTZIA EMATEA SABAI-LEIHOA BERRITZEKO IOAR KALEAN
61	2017/04/10	OBRA-LIZENTZIA EMATEA 483 LURZATIKO ITXITURA BERRITZEKO
62	2017/04/10	OBRA-LIZENTZIA EMATEA 1218 LURZATIA ITXTEKO
63	2017/04/10	OBRA-LIZENTZIA EMATEA TEILATUA BERRITZEKO ARRABAL KALEAN
64	2017/04/10	OBRA-LIZENTZIA EMATEA LURZATIAK IXTEKO
65	2017/04/10	GAINBALIOEN LUZAPENA ONARTZEA
66	2017/04/11	OBRA-LIZENTZIA EMATEA FATXADA BERRITZEKO MAYOR KALEAN
67	2017/04/11	OBRA-LIZENTZIA EMATEA ESTALPEKO ETXEBITZITZA ZAHARBERRITZEKO MAYOR KALEAN
68	2017/04/12	KIROL ESPARRUAREN URBANIZAZIO HOBETZEKO LANEN 3. ZIURTZAGIRIAREN FAKTURA ONARTZEA
69	2017/04/12	KULTURARTEKOTASUNERAKO AFAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA
70	2017/04/12	BERDINASUNERAKO AFAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA
71	2017/04/24	ALKATEAREN FUNTZIOAK ORDEZKATZEA

72	2017/04/25	BANKU-TRANFERENTZIA ONARTZEA
73	2017/04/26	IBILGAILEN ZERGA ITZULTZEA
74	2017/05/02	OBRA-LIZENTZIA EMATEA LOKALAREN BARRUALDEA BERRITZEKO LA VILLA KALEAN
75	2017/05/02	OBRA-LIZENTZIA EMATEA KOMUNA BERRITZEKO LOS PAULES KALEAN
76	2017/05/04	EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA-AFA ZAHARBERRITZEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA
77	2017/05/04	2017KO MAIATZAREN 9AN OSOKO BILKURA DEIALDIA

3.- UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA, EGOKIA BADA

ZIOEN AZALPENA:

Ikusirik ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiko 17 artikuluan jaso bezala, toki entitateek Ondasunen eta Eskubideen Udal Inbentarioa jaso behar dute, haien izaera edo lortzeko bidea edozein dela ere.

Ikusirik Kanpezuko Udaleko ondasunen inbentarioan burutu den egokitzapen osoa.

Ikusirik ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiko artikulua, bai eta apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 22 artikulua.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Kanpezuko Udaleko Ondasunen eta Eskubideen Udal Inbentarioa onartzea.

BIGARRENA.- Behin-behineko onarpenaren Akordioa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 30 eguneko epean Udal honen Iragarki-Taulan jendaurrean jarri, interesdunek espedienteaz aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Jendaurrean egon den tartea igaro ondoren, egokia den behin betiko erabakia hartuko da balizko erreklamazioak erantzunez.

Erabakiaren aurkako erreklamaziorik aurkeztuko ez badira, erabakia behin betiko bihurtuko da ordura arte behin-behinekoa izango den akordia.

LAUGARRENA.- Behin betiko akordioa -baita behin betikoa bihurtutako behin-behinekoa-, eta aldaketen testua oso-osorik argitaratuko dira ALHAOn.

4.- HIZKUNTZA EZ SEXISTARA EGOKITZEKO OHZ (ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA) ETA IBILGAILUEN ZERGA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN BEHIN-BEHINEKO ALDAKETA, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

Ikusirik hizkuntza ez sexistara egokitzeko ondasun higiezin zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga aldatzeko izapidetu den espedienteaz, baita jarduera ekonomikoaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza ere, oraingoan aurkitu diren hizkuntza akatsak zuzetzeko.

Ikusirik tokiko ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16tik 18ra artikulua, eta apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 22 eta 47 artikulua.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Ondasun higiezin zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eta jarduera ekonomikoaren gaineko zerga arautzen duten ordenantzen behin-behineko aldaketa onartzea.

BIGARRENA.- Behin-behineko onarpenaren Akordioa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 30 eguneko epean Udal honen Iragarki-Taulan

jendaurrean jarri, interesdunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Jendaurrean egon den tartea igaro ondoren, egokia den behin betiko erabakia hartuko da balizko erreklamazioak erantzunez.

Erabakiaren aurkako erreklamaziorik aurkeztuko ez badira, erabakia behin betiko bihurtuko da ordura arte behin-behinekoa izango den akordia.

LAUGARRENA.- Behin betiko akordioa -baita behin betikoa bihurtutako behin-behinekoa-, eta aldaketen testua oso-osorik argitaratuko dira ALHAOn.

5.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bileraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura Zinegotzia den heinean, maiatza kulturalarekin batera jarduera ugari programatu direla, tartean aipagarrienak dira: aerobiton, abesbatzen topaketa, edo kanpezu ioar maratoi erdia. Era berean, nabarmendu nahi du hurrengo egunetarako programatutako beste jarduerak, tartean: San Isidroren bezperan edo jaiegunean, Bujandako erreguteak, ikastolako jaia, BTT martxa eta Arquijasera erromeria.

Apirilaren 26an, kultura taldeko bilera egin zen non elkarteen eta administrazio batzarren proposamenak jaso ziren.

Gogoratu du maiatzean zehar, kirol jarduerak eta ludoteka amaituko dutela, eta inkesta pasa dutela zerbitzua baloratzeko, eta hurrengo ikasturterako proposamenak jasotzeko.

Bukatzeko, aurreko osoko bilkuran egindako galdera bati erantzun du, horma-irudiaren kostua 4.658,50€koa izan dela, eta inprimazioa auzolanaren bidez egin dela, eta 741 euroko gastua izan da materiala. AFAk diru-laguntza eman du, eta udalerako 3.861 €ko gastua izan da.

Adierazi nahi du aurreikusita zegoen saskibaloiko 3x3 atzeratuko dela jarduera asko pilatu direlako, data berria zehazteko zain dago.

Arenaza andreak, Gizarte Gaietarako Zinegotzia den heinean, ekainaren 9an energia salmentarako kooperatiba batekin bilera egingo dela azaldu du.

Maiatzaren 3an, zurrumurruen aurkako bilera berria egin da, eta hurrengo ekintza hilak 19an izango da. Bertara Richard Bacete joango da zurrumurruen aurkako gorputz Prestakuntza egiteko. Era berean, zinema eta antzerkia kalean antolatuko da, baina datak ez daude erabakita.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Emplegu Zinegotzia den heinean, aipatu du aurreko astean foru planaren deialde argitaratu zela, eta uztailaren 5a arte zabaliko dago dago proiektuak aurkezteko epea.

Futbol zelaiari buruz, datozen egunetan jasoko den proiektuaren zain daude, eta hila amaitu baino lehen lanei ekitea espero da.

Era berean, aurtengo Lanbideren enplegu-planaren zain daude. Zentzu horretan, Herrador jaunak aipatu du ekainaren amaierarako espero dutela.

Udal kontuei dagokienez, egikaritze egoerari buruz, 21 mila euro daude alde, eta diruzaintzan 200 mila euro inguru daude.

Amaitzeko, goizero familiek Lomceren aurka egiten ari diren plantoak direla eta haren elkartasuna adierazi nahi du, baita aurreikusitako mobilizazioei haien babesa.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Alkate andreak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten, ez dira eman, ordea.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko zazpiak eta hogeita bi minututan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.